



**DUAL IBILBIDEKO TUTOREAREN GIDA
PRESTAKUNTZA DUALA:
UNIBERTSITATEA-ENPRESA
2024/2025 Ikasturtea**

**EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (GIPUZKOAKO ATALA)
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua**



Helburuak

Gida honen helburu nagusia da orientabideak¹ ematea Unibertsitatea-Enpresa ibilbide dualean jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren argitzeko, ikaslea bertan hasi eta bere tutoretza eta ebaluazioaren jarraipena egiteko.

Argi izan behar dugu prestakuntza dualaren “zertarakoa”: Ikaslea enpresan integratu nahi da, elkarren prestakuntza eta jardunerako parte hartze eredu batez. Entzun beharko dira enpresaren beharrak, aztertu eta ekintzak planteatua (ikaslearen proiektu profesionala).

Aldez aurretik, batzorde dualeko kideek, fakultateko irakasleek eta ADEGIko laguntzaile batek egin beharreko elkarrizketak egin dituzte 2024/25 eta 2025/26 biurtekoan ibilbide dualeko plazetan arituko diren ikasleen aurre-hautespena egin ahal izateko. Horretarako, aintzat hartuko dira zenbait ezaugarri pertsonal (motibazioa, prestutasuna, malgutasuna, interesa, gaitasuna, inplikazioa), ikasleak ahal denik eta egokien esleituko badira enpresetan bete behar diren postuetan.

Bigarren mailako helburua litzateke, bere aldetik, aukera aprobetxatu eta enpresei garrantzi bereziko gaiak transmititzea, prozesua behar bezala amaituko bada:

- Ikaslearen prestakuntza enpresaren antolakuntza kulturaren barruan integratzeko borondatea.
- Prestakuntza proiektua eta eginbeharrak zehazteko garrantzia. Ebaluagarriak.
- Profirik “onak” dituzten ikaslearen aurre-hautespena.
- Balioak. Transmittitu konfiantza eta hurbiltasuna. Malgutasuna.

Fakultatea, erakundea eta ikaslearen arteko lotura

Prestakuntza Dualeko programaren garapenerako Lankidetzaren Hitzarmena

Erakundea eta ikaslearen arteko lotura. Enpresako egonaldiaren baldintzak

1. ADEGI²-k emandako jarraibideekin bat etorritik, enpresa eta ikasle langilearen arteko harremana lan eremuaren barruan gauzatzen da lan kontratu bat formalizatuta. Salbuespenak egon daitezke, proiektuak merezi badu.
2. Prestakuntza DUAL hau gauzatzeko erabiliko den kontratu mota, Alternantzia prestakuntza jasotzeko lan kontratu bakar bat izango da, zeinen helburua izango baita “unibertsitatea-enpresa prestakuntza prozesu DUAL batean parte hartzea, enpresaren benetako premietara egokitutako esperientzia praktikoa eskuratzeko betebeharrak burutzeko”.
3. Lan harreman hau bateragarria izango da kasu guztietan oro, ikasleak fakultatean egin beharreko prestakuntza akademikoan.

¹ Enpresak, ikasleak eta zereginak era askotarikoak direla kontutan hartuta, ikaslearen tutoretzaren ardura duen irakaslea da gida honetan adierazitako irizpideak hobekien egokituko dituen.

² ADEGIko lan aholkularitza taldea.



4. Dual ibilbideko iraupena 2025eko urtarrila/otsailean hasi eta 2026eko ekaina/uztailera artekoa izango da (guztira, 1.250 ordu) eta honako egonalditan banatuko da:
 - **I Egonaldia. 2025eko urtarrila/otsailatik ekainara:** 16 ordu/asteen (guztira, 325 ordu).
 - o 1go aukera: 2 egun enpresan eta 3 egun unibertsitatean.
 - o 2. aukera: 4 egun enpresan eta 3 egun unibertsitatean.
 - **II Egonaldia. 2025eko irailatik abenduara:** 16 ordu/asteen (guztira, 250 ordu).
 - o 1go aukera: 2 egun enpresan eta 3 egun unibertsitatean.
 - o 2. aukera: 4 egun enpresan eta 3 egun unibertsitatean
 - **III Egonaldia. 2026eko urtarrilatik apirilara:** jardunaldi osoa enpresan (guztira, 675 ordu).
 - **Gradu Amaierako Lanaren garapena, maiatzatik ekaina edo uztailera (300 ordu)**
5. Ordainketa lanbide arteko gutxieneko soldata izango da edota administrari laguntzailearen kategoriakoa, sektorearen hitzarmen arautzailearekin bat etorrita, eta egindako ordu efektiboaren proportzionala. Kotizazioa homoginoa izan daiteke, partzialitate koefiziente batez.

Honako hauek dira, laburtuta, ibilbide dualean **tutore edo mentorearen eginbeharrak:**

- a) Prestakuntza proiektua egoki eta zuzen garatzen dela bermatu.
- b) Enpresan egindako egonaldien egiazko jarraipena egin, entitate laguntzaileko begiralearekin koordinatuta eta, kasuan kasu, jarraipen koadernoari begiraturik.
- c) Ebaluazio prozesuan parte hartu, erakundeko begiralearen txostena kontuan hartuta.
- d) Gradu Amaiera Lanaren ko-zuzendaria izan, kasuan kasurako.
- e) Tutore lanari esker eskuratu eta ezagututako edozein informazio isilpean gorde.
- f) Intzidentziarik balego, Batzorde Mistoa informatu.

Era berean, egonaldian zehar egingo diren feedback saioetan parte hartu eta formakuntza saioak egin.

Jarraipena

Fakultateko tutorearen eta enpresako begiralearen figurak funtsezkoak dira jarraipena ondo egin dadin.

a. Aldez aurretiko bilera:

Urtarrilean zehar, enpresako egonaldia hasi baino lehen, garrantzizkoa da tutoreak -eta, hala baleritzo, zuzendaritzako beste kide batek- aurkezpen bisita bat egitea, zalantzak argitzeko, espektatibak zehazteko eta prestakuntza proiektu profesionala berresteko (1. eranskina).

Nabarmendu behar da ibilbide dual honen gako prestakuntza programa bat adostu eta garatzean datzala, non integratuko baitira ikasketa akademikoak eta enpresan egindako prestakuntza praktikoa. Horretarako, lankidetzaz eta kooperazioaz egin behar da lan, hezkuntza programa eta titulazioaren gaitasunak tartekatu behar baitira enpresak aurkezten duen proiektu profesionalarekin.

Hortaz, proiektuaren talde arduradunak eta tutoreak eta begiraleak kontsentsuaz adostu beharko dute prestakuntza proiektua, enpresan parte hartzeko maila ezberdinak (obserbazioa, aplikazioa, ardurak hartzea) aintzat hartuko dituen, bai eta profil profesionala eta egin beharreko betebeharrak edo jarduerak (ibilbidea). Honetara, hasierako lan plangintza zirriborratuko da, gerora aldatu eta zehaztu ahal izango dena.

³ Ibilbide dualak hautazko kreditu bezala 48 ECTS eta nahitaezko Gradu Amaierako Laneko 12 ECTS barneratzen ditu, titulua lortzeko nahikoak.



Hautatutako ikaslearen profila aurkeztuko da (2. eranskina). Enpresan elkarrizketatu baino lehen, ikaslearen CV eta motibazio gutuna aztertuko ditugu. Berarekin geratu ahal gara ezagutzeko eta enpresara joan aurretik “egin beharreko lanak” egin ditzaten (enpresari buruzko informazioa, sektorearena, eta abar emateko).

Inportantea da konfiantzazko giroa sortu, prestakuntza dualaren helburuaz eta hartutako konpromisoez hitz eginez.

Bisiten plangintza ere egin daiteke (koordinatzeko eta ebaluatzeko bilerak).

b. Koordinazio eta ebaluazio bilerak:

Enpresako egonaldia hasterakoan, bilera egingo dute hiru aldeek ikasleak garatu behar dituen gaitasunak, erdietsi behar dituen eta balioetsi behar zaizkion ikasketa mailak eta, horiek lortzeko, zer nolako jarduera egin behar duen zehaztearren (1. eranskin berretsia).

Hasierako irizpide gisa, hiru koordinazio bilera planteatu ahal dira enpresako egonaldi bakoitzeko (egonaldiaren hasieran, erdian eta amaieran).

c. Aldian-aldiko jarraipen bilerak:

Beharrezkoa da oso seihileko bakoitzean jarraipen pertsonalizatua egitea, tutore, enpresa eta ikaslearen arteko bilerak eginda. Aldian-aldian, tutoreak eta ikasle langileak bilerak egingo dituzte enpresan egin beharreko zereginak identifikatzeko, aurkitu diren problemak aztertzeko eta konponbideak bilatzeko. Bilera hauek sarriago egingo dira hiru aldeetakoak baino (astean behin edo 5 egunetan behin).

Halaber, hilean behin, bilerak antolatuko dira unibertsitatearekin, parte hartzen ari diren ikasleen eta tutoreek esperientziak elkarri trukatzeko. Gaitasunak nola ari diren eskuratzen aztertuko da eta hobetzeko erak bilatzeko. Gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak dira ebaluazioaren erreferentzia.

Epe bakoitza amaitzerakoan, egin beharreko txostenak egingo dira, tutore eta begiralearen aurrean defendatu eta gero, ebaluatu beharko direnak.

d. Txostenen aurkezpena:

Egonaldi bakoitzaren amaieran, memoria aurkeztu eta defendatzeko saioa, lortutako emaitzak ebaluatzeko, zailtasunak aztertu eta hurrengo eperako helburu berrian ezarriko direlarik. **Gogoeta praktikoa** behar du izan. Honetarako dago “jarraipen koaderno” edo *portfolia*, non jaso diren helburuak eta ebaluazioak.

Hortaz, epearen amaieran ebaluazioa progresibo eta gogoetatsua egingo da, gaitasunak oinarri hartuta. Tutoreak, begiralearekin batera, txosten bat ere egin beharko du ebidentzietan eta prozesuaren etapa ezberdinetan (lanaren hasieran, garapen prozesuan zehar eta berau amaitzerakoan) egindako ebaluazioetan oinarrituta.

Amaieran, enpresan burututako prestakuntza epe osoaren balorazio orokorra egingo da, enpresako tutoreak eta fakultateko tutoreak adostutako nota global batez, ikaslearen autoebaluazioarekin batera. Egonaldi (irakasgai) bakoitzeko ebaluazio txosten honek hurrengo egonaldia prestatzeko, lortu beharreko helburuak zehazteko balioko du. Txostena sinatu eta datatu behar da, enpresaren eta fakultatearen zigiluz.



Data adierazgarriak

- Aurkezpena enpresan:
- **I. egonaldia: 13 ECTS (325 ordu)**
 - Ikaslea enpresan hartzea: 2025ekorenan.
 - Koordinazio bileren datak:
 - Lehenengo txostena defendatzeko data:
- **II. egonaldia. 10 ECTS (250 ordu)**
 - Ikaslea enpresan hastea: 2025eko irailarenan.
 - Koordinazio bileren datak:
 - Bigarren txostena defendatzeko data:
- **III. Egonaldia 15 ECTS (375 ordu) eta Gradu Amaierako Lana 12 ECTS (300 ordu)**
 - Ikaslea enpresan hastea: 2026eko urtarrilarenean.
 - Koordinazio bileren datak:
 - Hirugarren txostena defendatzeko data:
 - Gradu Amaierako Lana defendatzeko data: